

«Egin dugu, egin dugu!»

[aurreko orrialdetik dator]

bikain hori nabarmendu du. «Gogoan ditut beheko kanpamentuko mus txapelketak: nafarrak gipuzkoarren aurka, bizkaitarrak arabarren arka... Haiek ziren erronkak, haiek!».

Rosenek sei urte lehenagoko espedizioaren eskarmentua azpimarratu du. «Aurreneko al-dian beldur asko, tabu asko, ezjakintasun asko zegoen, eta bigarren aldian horiek denak argituta geneuzkan». Sei urteko tarte hartan, gainera, Alpeetan eta Andeetan ere ibili ziren, Quitarraju eta Alpamayo igo zituzten... «Gure burua prestatu edo jantziago ikusten genuen, teknikoki jarriago. Horrez gain, Himalayan ere gauzak aldatu ziren: Hego Lepotik gailurreraino joatea normala zen, Messnerrek eta Habelerrek oxigenorik gabe igo zuten Everest...», azaldu digu Felipe Uriartek. Bi espedizioen artean alde nabarmenak izan arren, funtsean intentsioa bat bera zen, eta Uriartek ere «bakar bat bezala» gogoratzen ditu bi espedizioak.

Inguratze bidea eta aklimatazioa nork bere kasa egin zituen, nahikoa era anarkikoan. Batzuk Island Peak tontorrera igo ziren; beste batzuk Awi-ra; Gokyo bailaran barneratu zenik ere izan zen; Jorsale herrixkan, Ani Mingmiren sukaldean, une gogoangarriak igaro zituzten batzu-batzuek... Ez zuten diziplina estu bati lotutako espedizioa izaterik nahi, eta, nahiz eta talde giroa nagusi izan, inguratze bidea gutxienez bakoitzak bere kasa egitea nahiago izan zuten. Hala ere, martxoaren 22rako denak elkarrekin zeuden kanpamentu nagusian. Batzuk, ordurako lanean hasi ziren izotz jautsian.

Izotz Jautzia zen sasoi hartan Everesteko zatirik latzena: glaziarra egunetik egunera aldatu egiten zen, bizirik zegoen, eta pitzadura erraldoiez jositako izotz labirinto hartan komeriak igaro zituzten 80ko espedizioan ere. Pitzadura haietako batek, gainera, sherpa bat irentsi zuen bere barrunbeetara. Larria izan zen Ang Lapkaren istripua; ez zuten uste bizirik aterako zenik, baina Garaioa medikuaren ezagutzak eta tenpleak eta taldekide guztien ahaleginak Everesteko erraietatik bizien artera ekarri zu-

ten berriro Ang Lapka. 11 ordu iraun zuen salbamenduak, eta ezbehar hark areago estutu zuen sherpen eta euskaldunen arteko harremana. Espedizioan zehar, bati eta besteari, sarri esaten omen zuten sherpek, esker onez: «Doctor Garaioa very strong». Rosenen irudiko, zortea lagun izan zuten bi aldietan: «Ordura arteko ahaleginetan beti norbait hiltzen zen Everestean».

Ahalegin eskergaren ondoren, martxoaren 26an zabaldu zuten Izotz Jautsiaren azkeneko parte, egun hartan zabaldu zuten labirinto hartako azken ataka, eta 6.050 metroan ezarri zuten lehenbiziko kanpamentua. Bigarrena Isiltasunaren Bailaran, apirilaren lehen asterako ezarri zuten, 6.500 metroan. Lhotseko hormak lan handiagoa eman zien hirugarren kanpamentua ezartzeko eginahal horretan, baina apirilaren bigarren asterako bi denda ni-miño paratu zituzten Lhotseren begiradapean, 7.350 metroan. Eta Hego Lepora apirilaren 19an iritsi ziren aurrenekoz. Prest zegoen dena tontorrerako saiioetarako.

Lehen saioa hego gailurreraino

Gogoratzen duzue Felipe Uriartek espedizioari buruz idatzitako liburuaren azaleko argazkia? Nin Temba sherpa Hego Tontorrean, Everesteko tontor nagusia giblean duela, lan-jantzi laranja soinean eta oxigeno maskara aurpegia estaltzen diola? Bada, hantxe bukatu zen lehenbiziko ahalegina. Argazkia Xabier Garaioak eginga da. Garaioa bera eta Nin Temba 8.760 metrora iritsi ziren lehen ahalegin hartan, Hego Tontorrera. Maiatzak 4 zituen. «Arratsalde-




Pasang Temba sherpa, Everest tontorrean, txinatarren tripodean



Martin Zabaleta

Martin Zabaleta Montanan (EEBB) bizi da egun, mendi artean, emaztearekin eta lau hilabeteko alabatxo Lorearekin. Tartean-tartean etortzen da Hernani aldera, familia eta lagunak bisitatzerako.



**Mendi tontorrak
baino ez ninduen
bultzatzen
orantx. Altuera
orietan, oxigeno
faltagatik edo,
mundu honetatik
kanpora zaude»**



«Jendeak oso barruan du Everest-hura»

Ramon Olasagasti

• Zer aldatu zen batez ere 1974ko espediziotik 80kora?

Jendeak gehiago eskalatzen zuen. Garaioak, Kike de Pablok... Eskalada gogorrago eta teknikoagoetan eskarmentu gehiago genuen.

• Planteamenduetan ere bada al-daketarik. Zu eta Felipe Uriarte oxigenorik gabe saiatzearen aldekoak zineten.

Bai, 78an igo zuten Messner eta Habelerrek oxigenorik gabe, eta guk ere igoera garbia egin nahi genuen, oxigenoaren laguntzarik gabe. Bai-

na gure aurretik saiatu zirenak ez ziren gailurrera iritsi, monzoia ere gainera zetorren, eta horregatik guk ere oxigenoarekin egin genuen saialdia. Gailurrera iritea zen orduan printzipalena.

• 80ko espedizioan, zurearen aurretik izan ziren bi ahaleginetan gailurrera iritsi ez zela ikusirik, presiorik-edo sentitu zenuen?

Ez. Ez nuen batere presiorik izan. Lasai joan nintzen. Hori bai, tontorrerako bidean pentsatzen nuen gusturago joango nintzela taldekideren batekin edo beste sherpa batekin, Pasang ez baitzen indartsue-

na. Zalantzak hortik etorri zitzaizkidan. Fisikoki eta psikologikoki sherpa bultzatuz eta gorantz behartuz joan behar izan nuen beti.

• Zerk bultzatzen zintuen gora?

Mendi tontorrak. Altuera horietan, oxigeno faltagatik edo, mundu honetatik kanpora zaude, kapsula batean bezala.

• Txinatarren tripodea ikustean, zer pasatu zitzaizun burutik?

Sekulako poza sentitu nuen. Hainbeste esfortzu eta nekeren ondoren, gogo handia nuen iristeko. Besarkadak, poza, lagunekin hura dena partekatzea...

• Hiru ordu laurden eman zenituen tontorrean, batekin eta bestearekin hitz egiten talkiaren bidean?

Oroitzen dituzu orduko hitzak?

Bai, batzuk bai. Askok esaten zidaten kontuz ibiltzeko, behar bidean, zer ikusteko, nuen goitik galdetzen zidaten. Anaia ere beheko kanpamentu zegoen, eta harekin ere hitz egiten nuen... 45 minutu eta Pasang nion: «Hi, goazemak beherantze gauak harrapatu baino lehen».

• Hala ere, aurretik opari polit bat hartu zenuen amarentzat.

Bai, bai. Espedizioek, garai hartan behintzat, ohitura zuten tontorrean zerbait uzteko, eta negu tontorrera iritsi ziren poloniarrek Aita Santuak emandako arrosak bat utzi zuten. Nik, arrosarioa hartu nuen eta ikurrina utzi. Gero, ikurrina hori Czok eta Kukuczka poloniarrek hartu zuten egun gutxira.